



VASCO CATALANA TALDEAREN KALITATE-POLITIKA

VASCO CATALANA Taldeko Kontseilari Delegatuak faktore estrategikotzat jotzen du kalitatea; horregatik, erakundearen politika da bezeroek espero dutena eta dituzten beharrak erabat aseko dituen zerbitzua ematea, bai eta aplikagarriak diren legezko eta arauzko baldintza guztiak betetzea ere.

Taldeko Kontseilari Delegatuak Zuzendarien Batzordearen uzten du kalitatea ziurtatzearen erantzukizuna, eta hura izango da, Kalitatearen Arduradunen batzordearekin batera, UNE-EN-ISO 9001 arauan oinarritutako Kalitatea Kudeatzeko Sistema (KKS) garatu eta ezarri eta haren jarraipena egingo duena eta taldea osatzen duten enpresetako bakoitzeko arduradunak koordinatuko dituen.

Kalitatea Kudeatzeko Sistemak behar bezala funtziona dezan, Kontseilari Delegatuak beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak, teknikoak eta giza baliabideak jartzeko konpromisoa hartzen du, bai eta funtsezko dokumentazioa banatzekoa eta Vasco Catalana taldeko langileak trebatzekoa eta sentsibilizatzen ere, haiek kalitatearen inguruan sentsibiliza daitezten eta kalitatearen araudia behar bezala aplika dezaten. Era berean, enpresa bakoitzeko arduradunak bere eskumeneko baliabideak eman behar ditu, aurrez aipatutako helburua erdiesteko.

Gainera, enpresa-arduradun bakoitzak bere enpresa-esparruan langileak maila guztietan informatzeko, motibatuzko eta lankidetzan jarduteko plan egoki bat ezar dezan sustatuko du, eta politika hori ulertzen eta onartzen dutela ziurtatu behar du.

KKS ezarrita lortu nahi diren helburuak dira erakunde bakoitzaren funtsezko prozesuen kalitatea etengabe hobetzea, eginkizun bakoitza lehenengoan behar bezala burutu dadin saiatur, eta bezeroaren erabateko gogobetetasuna lortzea jaso duen zerbitzuarekin.

Zuzendaritza Batzordeak urtero markatzen, onesten eta berrikusten ditu Taldearen kalitate-helburuak. Helburu orokor horiek zehaztu egingo dira taldea osatzen duten enpresetako bakoitzean, eta enpresetako Arduradunen erantzukizuna izango da hori.

Halaber, taldeko enpresetan ezarritako Kalitate Sistemak eraginkorra izaten jarraitzen duela egiaztatzen da, barne-auditoretzen bitartez, eta sistema horiek aldizka berrikusita.

Enpresa bakoitzeko Arduradunek Kalitate-politika hori eta helburu partikularrak osatuko dituzte, horiek pertsonalizatzeko, beharrezkoa irizten badiote.

Taldeko Kontseilari Delegatuak UNE-EN-ISO 9001 arauan oinarritutako Kalitatea Kudeatzeko Sistema (KKS) ziurtatzeko eta hura garatzeko, ezartzeko eta haren jarraipena egiteko erantzukizuna du; horrez gain, Taldea osatzen duten enpresen Kalitate-politikak koordinatzeaz arduratuko da eta Kalitate Batzordearen esku utziko ditu horretarako lan administratiboak. Taldeko enpresetako Kalitate arduradunek osatzen dute batzorde hori.

Bilbo, 2019ko martxoak 12
Kontseilari Delegatua

Jon Azarloza González

VASCO

VASCO CATALANA TALDEAREN KALITATE-POLITIKA

Vasco Catalana de Consignaciones SA sozietatearen Kalitate-politika

Vasco Shipping Services SL sozietatearen Kalitate-politika

Cosvas Atlantic SL sozietatearen Kalitate-politika

In Side Logistics SL sozietatearen Kalitate- eta Ingurumen-politika

Intermodal Forwarding SL sozietatearen Kalitate-politika